

FUNTSEZKO JARDUERAK

Ekoizpenerako pertsona pare bat bakarrik beharko ditugu guk ez dugulako materiala ekoitziko baizik eta erosiko dugu behar dugun materiala. Hornitzaileak "SunPower" izango dira.

Mantentzerako pertsona askoz gehiago beharko ditugu lan gehiago egin beharko delako. Talde bat beharko dugu saldutako plakak konpontzea edo garbitzea eskatzen digutenean eta baita ere alokatutako eremuak mantendu beharko dira lurra ongi mantenduz eta plakak garbiak mantenduz. Langile hauek kontratatuko ditugu. Beti begiratuko dugu prestakuntza maila bat daukatenik.

Azkenik, webgune bat sortu beharko dugu saltzeko eta horretarako bi edo hiru pertsona beharko ditugu. Arazoren bat gertatuz gero hor prest egoteko laguntza emateko. Webgunea sortzeko norbait ordainduko dugu lana guregatik egiteko eta webgune on bat prestatzeko.